



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazio
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 19koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena; honen bidez, 2018ko irailaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka-eskaeren ebazpena ematen du.

Hezkuntza sailburuak, 2018ko maiatzaren 22ko aginduaren bitartez (2018ko maiatzaren 31ko EHAA), 2018ko irailaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitarteko aldirako Ikasiker lankidetzak beka deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

Hautaketa-batzordeak, 2018ko abenduaren 18an aurkeztutako eskaeren ebazpenerako proposamena aurkeztu egin dio Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari, unibertsitateko Ikasiker lankidetzak bekarako 2018ko irailaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitartekoa.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 307.500 euro, A Modalitatean (I. Eranskina) eta 11.000 euro, B Modalitatean (II. Eranskina)

Bigarrena: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei eta, baldintzak bete arren, beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea, A Modalitatean (III. Eranskina) eta B Modalitatean (IV. Eranskina).

Hirugarrena: Aurkeztutako eskaerari atzera egitea onartzea, B Modalitatean (V. Eranskina).

Laugarrena: Interesatuak, gorako errekurtsioa jarri ahal izango dio Hezkuntza sailburuari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 19a.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO



Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea